

JOXE AUSTIN ARRIETA.—*Arrotzarena. Neurtitz neurgabeak.*
Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala. Donostia, 1983.

Liburu honek 1982ko Irun Hiria literatur leihaketan lehen saria irabazi zuen poesia sailean.

Izenburuan bertan agertzen denez, liburu honek bi zati ditu. Axularrek esango zuenez: bi partetan partitua eta berezia.

Lehen partea 29. orrialderaino doa, melankoliaz beteriko bertsoz, aintzinako oroitzak gogoraziz. Estilo berezia du eta hizkuntza landua. Gaurko gazteen artean ohi ez bezalakoa. Bertako hiru sonetoak bikainak dira. Bigarren partean ordea, gai libreagoak erabiltzen ditu. Eretan Lizardiren oroitzapena dakar. Edertasunik ez zaio falta, baina samurtasunez ez nuke horrenbeste esango. Hitz guti erabiliak, bazter euskalkietakoak eta abar, pisu gehiegi ematen diote poesiari ulermenera naro eroateko.

Orotarik, nere gogorako, koplak ditu politenetakoak. Herrikoienak ere bai. Jenero horretan ohi bezala, bizkorrak eta alaiak dira. Gainera ondo taxaturik eskaintzen dizkigu.

Arrietak asko begiratzen dio hizkuntzari, narraskerietara erori gabe. Hasieratik azkeneraino eusten dio bertsoz gintzari hizkuntz aberatsen hornituz. Behar bada hor dago liburuaren gakoa. Baina, bere poetikaren iturburuak, iduritzen zaigu, 67. orrialdean somatzen direla.

Euskaltzalerik ez da damutuko liburu hau irakurtzeaz, eta are gutiago olerkaritza maite duenik.

Otsalar

JOSE ANTONIO MUJIKA.—*Itzalak*. Elkar argitaletxea. Euskal Literatura saila. Donostia, 1984.

Oker ez bagaude Durangoko Liburu Azokan aurkeztu zen Jose Antonio Mujikaren «Itzalak» izeneko lehen ipuin bilduma. Bost ipuinek osatzen dute liburua, eta lehendabizikoak, «Herabearen ihesa» izenekoak, Eusko Jaurlaritzak 1984 urtean antolatutako «Kirikiño Saria» irabazi zuen.

Jose Antonio Mujikaren ipuinetan agertzen diren gizakiak itzalak dira, bildumaren izenburuak adierazten duen bezala. Izaeraren eta grinaren, egunerokotasunaren eta ametsen, errealitatearen eta izkutuko desioen arteko borroka desorekatuak sortarazten dituen itzal triste, lanbrotuak.

Lehen ipuina lotu besterik ez dago horretaz jabetzeko: garapen narratibo paralelistiko eta kontrajarri batez, Mattinen egunerokotasun sinplea eta Mattinen haundinahiko ametsa kontatzen zaigu, ametsak gero eta indar haundiagoa hartzen duelarik, frustrazio eta sentimendu mingotsen eragozgarri bezala.

Mattinek izkutuko maitasuna luzatu nahi dio Edurneri baina ausardia faltak, bere buruari ikusten dion txikitasanak, ez dute horretarako biderik eskaintzen eta ametsaren bidez lortu nahi izango du garaipena. Eta ametsa borobiltzen doa. Gaizkile batzuk sartu dira Edurneren etxean eta hau bortxatu nahi dutenean, Mattin sartuko da etxean haien tiro guztiak berak jasoz. Herrian eskainiko zaizkion hiletak heroe bati eskaintzen zaizkion omenezko hileta horien antzekoak izango dira. Ametsa hala doa borobiltzen, Mattinen apaltasunetik irtezeko egarriz, bere ausardiaren neurriak eta maitasunaren mailak erakutsi nahiz.

Benetako Mattin eta ametsetakoa, dena den, beti da, oso agerian ez bada ere, bat eta berdin, edo, hobeto esateko, frustrazioz lepo dabilen Mattin ezin uler daiteke frustrazioez bakarrik, ulertu behar bait da halako gizon bat ere ametsen bi-

dez ere, bere desio izkutuen bidez ere, desio horiek inoiz kun-
plituko ez badira ere, Mattinek garbi izango baldin badu ere
Edurnerekin ezertxo ere lortu ezinaren segurantz.

Kontakizun zuzen, linealetik ihestea, bestetik, ez da ka-
pritzozko zerbait, hautatutako kontagaiak eskatzen duen beha-
rrezko teknika baizik. Garrantzitsua da hau azpimarratzea,
teknika narrazioaren zerbitzutan jartzea narrazioak hala es-
katzen duelako egin behar bait da, eta ez alderantziz.

Bestetik, Mujikaren idazkerari isurtzen zaion etengabeko
ironia eta euskara zehatz, egokia ere kontutan hartzekoak
dira.

Anjel Lertxundi

*Piarres Lafitte-ri omenaldia — Homenaje a Pierre Lafitte —
Hommage à Pierre Lafitte.* IKER -2. Euskaltzaindia.
Real Academia de la Lengua Vasca. Académie de la Lan-
gue Basque. Bilbo, 1983.

Euskaltzaindiak, *Iker-2* alea Piarres Lafitte jaunaren ome-
nez plazaratzean, urrats berri bat ematen zuen euskal linguisti-
karen ikerketa alorrean. Euskalarien Nazioarteko Jardunaldie-
kin ireki zuen bide beretik doa Iker saileko bigarren liburu
hau ere. Hura izan zen 1980. urteko udaran Euskal Herriko
Unibertsitatean, Leioako *campus*-ean, edonongo euskalari ja-
kitunak bilduz ikerketarako ikuspegi berrien abiapuntu eta
orain datoz ondorenezko uztak.

Esan beharra dago Piarres Lafitte-ren omenezko liburu
hau, Euskaltzaindiak Gipuzkoako Foru Diputazioaren lagun-
tzari esker lortu duela. Bere aurkezpena, Uztaritzen egin zen
1983ko maiatzaren 23an, Lafitte zenari omenaldia eskaini zi-
tzaion egun berean.

Iker-2, edukinez, lehenengoa bezain aberatsa dator. Lehen-
go hura bezala, E. Txillidaren azalez, 23 x 16,5 zentimetro neu-
rriz, 923 orrialdek osatzen dute. Liburu mardula beraz.

Sarreran Lafitte jaunaren bio-bibliografiako zerrendak
daramazki. Gero, lehen atalean, 37. orrialdetik 729.era berro-
geta lau iker lan hizkuntzari buruz: morfologia, lexikografia,
joskera, tipologia eta abar aztertzen dituztenak; bigarren ata-
lean ordea, beste hamalau lan geografia, etnologia, historia
eta artea gaitzat datoz, inoiz Lafitte zenak berak ere erabiliak
zituen gaiak hain zuzen.

J. Allières-en «De la formalisation du système verbal bas-
que»tik hasi eta Zytsar-en «Los numerales del vascuence»ra
arte euskararekin arduratzen direnek badute hor zer hauta.
Kolaboratzaile diren euskalari ospetsuak heurak dira kalita-
tearen adierazgarri. Hor dira, besteak beste, Allières, Altuna,
Barandiaran, Bidart, Goienetxe, Haritschelhar, Lekuona zaha-

rra, P.G. Lertxundi, Metpjin, Mitxelena, Mukarovsky, Orpustan, Peillen, Rebuschi, Suzuko Tamura, Trask, Viers, Villasante, Yrizar, Zytsar, hizkuntzari buruz eskainia den lehen partean; eta Duvert, Garate, Oronoz, Telletxea Idigoras, Ugalde eta beste gainerako gaietan.

Orotara: 33 lan dira euskaraz idatziak, 14 gazteleraz, 10 frantsesez, 2 rusoz, 1 alemanez eta beste bat ingelesez. Anekdotak gisa esan dezagun, japonesa batek idazten duela ingelesez eta ingeles batek euskara hutsean eta ez edonolako lana.

Hor argitaratzen diren zenbait lan urte askotan ikerketak jarraituaz burutuak dira, euskal linguistika alorrean luzarorako oinarriak jarriko dituztenak. Eta, azkenik, esan dezagun, liburu hau argitaratzeaz Euskaltzaindiari zerbait zor badiogu ere, ez gutiago bere lanez hortarako meriturik aski lortu duen gizonari, bere omenez bildua denez.

Fr. LUIS VILLASANTE, OFM.—*Eliza. Kristau fedearen sustraiak*, III. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. Donostia, 1984.

Kristau fedearen sustraiari buruz Fr. Luis Villasantek idatzi duen obra hirukoitzaren azken partea da hau. Lehen *Jainkoa* (1962), bigarrena *Jesukristo* (1969) eta hirugarren hau *Eliza* deritzana.

Hara non oinarritzen den liburu honen edukina: Lehen kapituluan Eliz barnean gaur nabari diren zenbait joera adierazten dira. Bigarrenetik sartzen da Jainkoaren erresuman, gero Apostoluen auziaz, hierarkiazko karguak, San Pedoren

aintzintasunez, Elizaren lehen urratsak, Erromako burutza, Aita Sainduaren tokia Vatikanoko Lehenak eman zuen definizioz, Eklesiologiaren giltzarri den Apostoluen suzesioa atxikitzez, Apezpikuen kolejialtasunez Vatikanoko II.ak irakatsi zuen arau-eraz, Kristiandadepeko kondaira gertakari eta istiluak interpretatuz, hamabitik hamabost kapituluetan Eliz Irakasgoaren auziaz, elizaren zertarakotasunaz. Herreraino Teologia Fundametalaren metodoz aztertzen du (batipat honen ikuspegiz hartzen bait da Eliza liburu honetan). Hamazazpigarrenean Eliza fedezko misteriotzat zer den adiaraziz dator, gero Elizaren ezaugarriez, erlijioso bizitzaz, apaiza gaurko munduan, Eliz egiturako tentsioak eta Elizaren amatasunez.

21 x 15,5 neurritz 412 orrialdez osatzen den liburu mardula, apaingarritz eta argazkiz ere oso jantzia dator.

Edonorri aitortu beharrezkoa zaigu Instituzio bezala Elizak duen iraupena harrigarria ez ezik historian beste ezerk ez bezalakoa gertatu dela eta bere funtsean fede sendo bati zor zaiola. Beste gauza bat da gure egunotan eskatzen zaion gaurkototasuna. Alde honi garrantzi guti emango dio egileak, zeren badaki instituzio iraunkortasunaren berri. Hala ere, liburua- ren lehen partean agertuko ditu zenbait eritzi: «Badakit egun gaurkototasuna bilatzen dela. Baina gaurkototasuna ez dago bakarrik gauza berriak esatean: gaur gogoratzea komeni den gauzak esatean ere bai».

Vatikanoko II.a eta Holandako kontsilioaren arteko eritziak ere emango dizkigu: «Vatikanoko II.aren orientazioa supernaturala da, Jainkoari buruzkoa; eta alderdi antropozentrikoa ondorio bezala dator. Holandako Kontsilio Pastoralean, berriz, gizonagan hasten eta bukatzen da dena».

Une horietan «Teología de la Liberación» deritzana ere kontutan hartzen du. Oraiko moda hortaz 40. orrialdetan emango digu bere eritzia, «Liberazio» teologiaren zentzu semantiko-koa argituz. Izan ere zer besterik izan da kristautasuna Jainkoari errendaturik egotean gizon bakoitzaren libertatea eta lagunurkorik ez menperatzea baizik? Hortarako, izpiritu berri bat ekarri zuen mundura, 47. orrialdean adieraziko digunez.

Argi dago egilea fede sendo baten barnean dagoela. Hala ere idekitasun handiko gizona ageri da. Agnostikotasuna, ulertu ez ezik, oso normalizat hartzen du; baina ezeptikotasuna ezinezkoa iduritzen zaio. Bizitzaren izateak berak kezkatzen bai du gizona. Tartean pluralismoa ere aipatuko digu, edonork haintzat hartzekoa denez.

Aspaldiko gaia izanik, gaurkotasunik ezin zaio ukatu. Bide horietatik zerbait apartetxo gabiltzanontzat ere badu zer irakatsi. Eliza gaiaz jakintzaz beteriko liburu irakurgarria. Hizkuntza ordea, aberatsa eta aldi berean argia eta erraza, egile prosalari bikaina denez.

ZOFIA SZLEYEN.—*Czekajac na lubego. (Poezja milosna dawnej Hiszpanii)*. Wybrała, przelożyła i opatrzyła posłowiem. Wydawnictwo Literackie. Kraków, 1981.

Krakobian agertu zen Hispaniako poesiaren bilduma hau. Gaztela, Portugal, Galizia eta Kataluñako hizkuntzetako poesien artean dator Euskal Herrikoaren presentzia ere. Beti ere on da herbestekoez gure literaturatik zer hautatzen duten jakitea. Lehenago alemanera Frey eta Brettschneider-ek itzuli eta argitaratuaren berri eman genuen (ikus *Egan*, 1983. urtekoa bere 219. orrialdean) eta orain Jan Braun euskalariak polakora itzuliz argitaratuaren berri dakargu.

Euskal Herrikerik lau poema baizik ez dira, XVII. mendekotzat jotzen ditugun balada eta erromantzeak.

Jan Braun-ek itzuliak, seguruaski berberak hautatuak, liburuaren 135-144. orrialdeak osatzen dituzte, izenburu honen pean: «Ballady i Romance baskijskie, Wiek XVII (Przekłady dokonane przy współpracy filologicznej doc. dra Jana Brauna)».

Hara hemen zeintzuk osatzen duten: *Narzczona z Atharratz* (Atharratzeko ezkongai); *Pierwszy kwiat* (Lehen floria);

Ptaszyno, dokad... (Xorittua, nurat hua...) eta *D studni z dzbanem* (Goizean goiz jeikirik). Azken hau, agiri denez, Jorge Riezenen *Nafarroako euskal-kantu zaharrak* deritzan bildumatik hartua (64. zenbakiduna).

Erdarazkoetan, zenbait ononimoz gainera, Cervantes, Gón-gora, Lope de Vega, Quevedo..., eta, esan bezala, zenbait ga-lego, katalan eta portuges.

Ez da liburu handia. 167 orrialde baizik ez ditu 19 x 19 zm. neurrian.

ი ა ნ ბ რ ა უ ნ ი . — ბ ა ს კ ო ლ ო გ ი ი ს უ ნ ს ა ვ ა ე ლ ი (ლ ე ჯ ი ე ბ ი ს კ ო რ ს ი) .
აკად. არნ. ჩიქობავას. წინასიტყვაობითა და რედაქტორობით. თბილისის უნივერსიტეტის
ბანოშვილის კათედრა. თბილისი, 1984.

Euskal Ikaskuntzarako Sarrera da, georgieraz idatzia. Egi-lea Jan Braun poloniar euskalaria eta argitaratzeilea Tbilisi-ko Unibertsitatea, 1984-an.

Georgieraz ez dakigunez, edukinetik eta bereziki bibliografiatik ohartzen gara liburuaren edukinez eta balioz.

Hara hemen bere aurkibidea: Arn. Chikobava-ren hitzau-
rrea. Atarikoa. I.—Euskaldunak. Ezaugarri nagusiak. II.—Eus-
kaldungoaren historia. III.—Euskalaritzaren historia. IV.—Hiz-
kuntzaren geografia, jatorria eta adierazpena. V.—Fonologia
eta fonetika. VI.—Morfologia. Substantiboak eta adjetiboak.
VII.—Izenak. Numeralak. VIII.—Aditza. IX.—Joskera. Eta bu-
katzeko bibliografia.

Besteak beste, bibliografia hortatik ikusten dugu non oina-
rritua duen bere lana: G. Lacombe, R. Lafon, J. Allières, H. Ga-
vel, L. Mitxelena, N. Moutard, H. Schuchardt, P. Lafitte, I. L.
Mendizábal, P. Zamarripa, K. Bouda, E. Lewy, R. M. Azkue,
P. Lhande, D. Alzo, H. R. Marr, C. C. Uhlenbeck, R. R. Braun
eta beste.

FERNAND BONNEURE.—*Brugge beschreven. Hoe een stad in teksten verschijnt.* Elsevier Brussel, 1984.

Liburu honetan literatura lanetan Brujas hiriarri buruz edo bertako pasartez agertzen diren testu zatiak biltzen dira. Gehiena danesetikakoa bada ere, Europako zenbait hizkuntzatatik jasoak daude eta ez da falta idazle ospetsurik ere: Dante Rossetti, Victor Hugo, Barrés, Zweig, Zuckmeyer, Mallarmé, Baudelaire, Yourcenar, Gezelle, Hugo Claus, Rilke, Paul Claudel eta abar.

Idea ona izan da F. Bonneure delakoarena, orainarte bidaia liburuetatik soilik egiten ziren holako bildumak eta honak literaturazko testuetatik harturik egin bai du.

Ohi ez bezalako liburu hau, ongi inprimatua dator, luxoz, eta bere 200-207 orrialdeetan Federico Krutwig-en *Erroten Burgiko mystêrioa* deritzan eleberritik hartutako testua dakar, *Biskaiersplein* (Bizkaitarren plaza) eta hiriko gazteluaren arteko kaleak eta azti-sinbolojiaz eta sineskeraz ematen dituen zatiak.

Egan-en aurreko zenbakian aurkeztu genuen Krutwig-en liburu hori. Itzulpenak ulermenerako kalterik ez ziola egingo iduritzen zaigu.

On dira holako lanak gure hizkuntza eta kulturaren zabal-kunderako.

Unesco-ren Albistaria.—Munduari buruz leiho irekia. 1984 Otsaila. XXXVII. urtea.

Eusko Jaurlearitzaren babespean HABE Alfabetatze Sailaren eskutik datorren aldizkari berria dugu. Duela hogetahamazazpi urte sortua bazen ere, berria da euskararentzat. Gure hizkuntzan lehen aldiz egiten denez.

28 hizkuntzatan egiten zen oraintsurarte, lehen orrian dionez, eta euskarazkoak 30.a egiten omen du. Hala agertu ere otsailaren 15ean gaingiroki ezik handikiro aurkeztu zen lehen ale hau Maria Kristina Ostatuan. Han bertan azaldu zen hasierako historia. Baina bada aipatu ez zen beste historia bat ere, prehistoria ez dena. Nori berea ematerakoan kontutan hartzekoa. *Unesco-ren Korreoa* (eta ez bildurto *korreo* erabiltzeaz giputz-beterriarrak *Korrika* noranahiko hedatu digutenean) euskaraz argitaratze asmoa Euskaltzaindiaren Jagon sailetik sortu zen eta Kultur Sailari eskaini.

Asmoa aspaldikoa zen, egia esan. Trantsizio garaiko Kultur Kontseilukoek zenbait urrats eman ere bai, baina ondokoek baztertu zuten eta proiektua lo egon da J. M. Velez de Mendizabali eskaintzeko aukera etorri arte.

Dena dela, hara hor euskaraz kaleratua hainbeste opa zaion aldizkaria.

Aldizkari honek, gehienetan lan monografikoak ematen dituenez, zenbaki hau analfabetizmoari eskainia da, honako edukinez: «Inperatibo moralak», Amadou-Mahtar M'Bow; «Analfabetakuntza eta garapena: prozesu bakar bat», Marcel de Clark; «Kartilatik telebistara», Adame Quane; «Alfabetakuntzaren ekonomia politikoa», Herbert Gintis; «Munduko egoera», txostena; «Laugarren mundua. Alfabetoak», Ali Hamadache; «Inmigratuak, bi aldiz deserroturik», Sonia Abadir Ramzi; «Mundua eta letrak», Paulo Freire; «Unesco eta alfabetismoaren aurkako burruka», txostena; «Alfabetatze sariak 1983», berriak.

Gure kulturgintza eta euskara suspertzen laguntzeko aldizkari egokia iduritzen zaigu. *Unesco-ren Albistariak* abiada hartu du eta ibiliaz bere bidea egiten du.

Itun Berria. Elizen Arteko Biblia. Bibli Elkarte Batuak (Sociedades Biblicas Unidas). PAX Argitaletxea. 1983.

Liburu hau, bere sarreran aitortzen denez, 1977tik Elizen Arteko Biblian aritu direnak burutua da. Bereziki, Eliza Katolikoaren eta Bibli Elkarte Batuaeren artean.

Grekerazkotik egindako itzulpena da, eta ez Vulgatatik. Hortarako The Greek New Testament (Third Edition, United Bible Societies) testu kritikoa oinarritzat eta abiapuntutzat hartuaz.

Hiru urte lehenago argitaratua da Iruñea, Baiona, Bilbo, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutien *Itun Berria* (1980) eta Bibli Elkarte Batuak atera duenetik bada aski desberdintasun. Euskara batuan eta Biblia gunean berdintsuak badira ere, itzulpen aski desberdinak dira adieraztez. Esate baterako, hemen «sos» dena, bestean «txanpon»; hemen «dirutegi» dena, bestean «atabaka» eta holakoak. Orduango diru izenak erabili ezinik egungo jendeak uler dezan, zeren haiiek «atabaka» erabiltzen zutela jakitea ere urrutitxo joatea bait da. Bestalde, Ebanjelistek badute euskararen lehenatasun bat Leizarraga eta Urte-ren bidez eta horri oratuz Testamendu Berria izenburutzat gordetzea ere ez zen gaizki. Zeren euskaldunarentzat, *Ituna*, iluna gertatzen bait da. Hein batean, Testamendu da garbizale direnentzat eta ez alderantziz.

Liburuaren aurkezpen laburra Argitalpen-Batzordeak Donostian 1983ko urtarrilaren 25ean egina da. Lastima da sarrera hau gainerako testuaren mailakoa ez izatea. Hemen, protestanteek ez dute izan axola handirik, zeren beharrezkoa bai zuen norbaitek orraztaperen bat ematea hutsik larrienak kentzeko behinik-pehin. Besterik da sarrera orokorra, baina batez ere testu itzulia.

Testu itzulian, euskara jator emateaz gainera Biblia bera funtsez adieraztea. Liburuaren egitura non eta nola oinarritzen den oso ondo adierazten da aurkezpenean: Itzulpenaz aparte, eranskin askoz hornitu eta aberastu da. Osagarri asko daroa

liburuak, berezko testuaz gainera. Lehenik Sarrera Orokorra dator. Gain-gaineko ikuspegia darama horrek Itun Berria osoa-ri buruz, eta berori osatzen duten liburuetatik bakoitzari buruz. Hurrena, Biblia osoko liburuen zerrenda dator. Liburuon izen-tan, orain arteko izenak kontutan hartu dira gehienbatean; batzutan, halere, izen berriak eman beharra ikusi da. Segidan, Itun Berriko liburuak datoz hurrenez hurren. Bakoitzari sar-reratxo bana eman zaio, liburuaren edukina gain-gainetik azalduz. Orri-oinetan beste osagarriok eman dira: oharrak, al-de batetik eta erreferentziak bestetik. Azkenean, lagungarri, hitz-saila eta segidan hiztegi arrunta.

Liburuarekin batean iritsi zitzaidan Audelino González Vi-lla-ren hilberria. Igazko azaroaren 4an pausatu zen 83 urtekin bere sorterri zen Leon-en. Audelino, gizon atsegin hura, albai-teroa zen ogibidez, baina Bibliazale amorratua bere gogoz. Bibliofilo bezala, Biblia zahar biltzaile nabarmendu zen eta kolekzio interesgarria lortu. Esaten denez, Espainiako libutu-tegi partikularrik hoberena omen zuen Biblia kolekzioz. Be-re liburutegi hortan euskarazkoak ez bazituen eta horiei bu-ruz mintzatzean ezagutu nuen bera. Gainera, sei urte dira Donostian Ebanjelistek Biblia astea eratzen hasi zirela. Hiru urtez egin zen eta Manuel Corral eta Juan M.^a Olaizolak anto-latua bazen ere Audelino-ren laguntza izan zuten. Lastima izan zen antolakizun haiek jarraipenik gabe gelditzea.

J. S. M.

IÑAKI EIZMENDI «BASARRI».—*Bertsolaritzari buruz*. Auspoa Liburutegia. Tolosa, 1984.

Izenburuaren jabe da Basarriren prosazko lehen liburu hau. Aldizkari eta egunkarietan 1961etik 1984ra bitartean argitaratutako artikulu bilduma da, baina ez ordea nolana hiko bilduma, bertsolaritzari buruz egileak idatzi izan duenaren lan hautatuak baizik. Eta Basarriri nork uka gai hortaz dakiena?

Lehenago Xalbador, Uztapide eta Amurizak idatzi zuten beren liburuetan bertsolaritzari buruz, baina oso premiazkoa genuen Basarrirena. Hainbeste urtetan txapeldun izana, ikasienetakoa eta urte askoan plazetan aritua. Hau, gure artean nor nahik dakiena da eta ez naiz hasiko hemen bere merituak errepikatzen. Liburu honetan bildu ditu sakabanaturik zituen idazlanak, bere esperientziak, eritziak, kritikak eta historia diren edo historia izango diren agiri asko. A. Zavalaren hitzaurre interesgarri batekin dator.

Esan beharrik ez dago liburu aberatsa dela bere edukinez. Lehendik ere bagenekien giputz beterriar kontalari trebea zela Basarri eta hemen ere hala nabari da bere euskera jatorra, bere hizlaxozko ahalmen berezia. Hori behintzat argi erakusten digu. Bertsozale ez den edozein euskaldunek ere gustora irakurtzeko liburu iduritzen zaigu, eta bertsozaleez ez dugu zer esanik.

Otsalar